


Eraikuntza-kostuek, Euskal AEn, % 1,0 egin dute gora 2023ko otsailean

Urte arteko terminoetan, 2023ko otsailean, 2022ko otsailaren aldean, prezioen igoera % 9,3koa izan da

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizeak % 1,0 egin du gora 2023ko bigarren hilabetean, lehenengoarekin alderatuta, Eustatek emandako datuen arabera. 2022ko hil berarekin alderatuta, kostuek % 9,3 egin dute gora.

Eraikuntzaren sektoreko kostuek % 1,0 egin dute gora hil arteko terminoetan, eta Obra zibilekoek, % 1,2. 2022ko otsailarekin alderatuta, prezioak % 11,6 igo dira Obra zibilaren kasuan eta % 8,8, Eraikuntzaren kasuan.



Aurreko hilaren aldean, 2023ko urtarrilaren aldean, **lehengaien** kostuek % 1,4 egin dute gora, eta **eskulanaren** kostuak berdin dirau. Urte arteko terminoetan, berriz, lehengaien kostuak % 11,5 egin du gora, eta eskulanenak, % 2,1.

Lehengaien kostuak Eraikuntzaren sektorean % 1,3 egin du gora, hilen artean, eta Obra zibilarenean, % 1,5. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehenagaien kostuek % 10,9 egin dute gora, eta Obra Zibilekoek, % 14,4.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Otsaila 2023

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	126,7	1,0	9,3
Eraikinak	126,0	1,0	8,8
Obra zibila	130,0	1,2	11,6
Lehengaiak	129,1	1,4	11,5
Eraikinak	128,1	1,3	10,9
Obra zibila	133,3	1,5	14,4
Laneskua	119,1	0,0	2,1

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2023ko Martxoaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektorean kontsumitutako lehenagaien prezioetan, 2023ko otsailean, 2022ko otsailarekin alderatuta, igorarik handienak erregistratu dituztenak honako sektore hauetakoak izan dira: *Mineral ez-metalikoak* (% 18,3), *Zuraren eta kortxoaren industria* (% 18,2), *Mineral ez-metalikoen industria* (% 16,8) eta *Kautxua eta plastikoa* (% 13,1). Lehengaoen prezioetan honako sektore hauek izan dute hazkuntzarik moderatuena: *Material elektronikoa* (% 3,2ko igoera), *Makinen fabrikazioa* (% 4,3ko igoera) eta *Petrolio-fintzea* (% 4,4ko igoera).

Euskal AEn kontsumitutako lehenagaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p) . Otsaila 2023

	m / m-12
Ezmetalezko meak	18,3
Zuraren eta kortxoaren industria	18,2
Petrolio-fintzea	4,4
Industria kimikoa	11,8
Kautxua eta plastikoa	13,1
Produktu mineral ez-metalezkoak	16,8
Metalgintza	12,5
Metalezko artikulak	6,7
Material elektronikoa	5,3
Material elektrikoa	3,2
Makineriaren fabrikazioa	4,3
Altzarigintza	8,0
Energia elektrikoa eta gasa	7,1

Oinarria 2015=100

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2023ko Marboaren 24a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Argibide gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62